

DESBERDINTASUNAREN IKUSPEGIA

(Denbora: 90 minutu)

(*) *Ondoko azalpena funtsean Situación de la Mujer en el Mundo 2000 izeneko Nazio Batuen txostenaren laburpena da.*

Garapenerako Nazio Batuen Programaren (PNUD) Giza Garapenari buruzko Txostenak zenbait urtetik hona adierazten du, gizon eta emakumeek ez dutela eskubide eta aukera berdinek munduko inongo herrialdetan.

Emakumeak dira munduko biztanleriaren erdia, baina munduan dabilen diruaren hamarren bat baino ez daukate eta jabetza guztien ehunena baino ez da berea. Gainontzekoa...gizonen eskuetan dago.

Emakumeek munduko lanaren %52 egiten dute, baina lan horren herena baino ez zaie ordaintzen. Gizonek lanaren %48 egiten dute, baina lan horren hiru laurdenen truke saria jasotzen dute.

Munduan diren 1.300 milioi txiroen bi heren emakumezkoak dira. Heren bat dira gizonezkoak.

Munduan diren 960 milioi eskolagabe helduen bi heren emakumezkoak dira. Era berean, eskolara joaten ez diren edo eskola behar baino lehen uzten duten 130 milioi umeetatik bi heren neskak dira.

Hiru emakumetik batek bere seme-alabentzako jana eta hezkuntza lortu behar du, eta horretarako ez du gizonen laguntzarik jasotzen.

Munduan diren errefuxiatuen %80 inguru emakumeak eta umeak dira.

Emakumeak munduko parlamentarioen %10 dira, ministerioetako postuen %6 eta ekonomia arloko administrazioetako eta gobernuetako postuen %14. Gainontzeko karguak...gizonen mende daude.

Jatorria: PNUD. Giza Garapenari buruzko Txostena 1995.

Biztanleria

- Emakumeen kopurua gizonena baino zerbait murriztagoa da munduan - 99 emakume dago 100 gizoneko. Batez beste, Asiako eta Afrika Iparraldeko herrialdeetan gizon gehiago dago emakumeak baino.

Hegoaldeko Asian dagoen emakume defizitaren arrazoia, behar bada, emakume eta neskekiko diskriminazio mota batzuk izango dira, hein batean. Herrialde gutxi batzuetan, joera da mutil gehiago jaiotzea neskak baino; horren arrazoia da, beharbada, ohituraz askoz nahiago dutela mutilak jaiotzea, eta horren ondorioz honako egoera hauek ematea: sexuagatik eginiko aukerako abortuak erraztu egiten dira, ez dute aitortzen nesken jaiotzarik edo ume horiek hil egiten dituzte.

- Munduan 1.150 milioi nerabe dago gutxi gorabehera, eta gehikuntza handiena Afrikan gertatu da. Historian izan den nerabe kopururik handiena da. Garapen

bidean den munduan, nerabeek gazteek eduki ohi ez duten muga eta oztopoei egin behar diete aurre.

- Biztanleak zahartzen ari dira mundu osoan. Adineko emakumeen eta gizonen kopurua gazteena baino askoz murriztagoa bada ere, adinekoen kopuru hori askozaz bizkorrago handitzen da. Adineko emakumeak bereziki ahulak dira; horiek dira, ziurrenik, alargundu eta bakarrik bizi beharko dutenak, eta horren ondorioz, baliabide ekonomikoen eta laguntzaren beharra izango dutenak.

Familia

- Emakumeek eta gizonak gizartean duten zeregina eta familian duten rola banaezinak dira.

Ezkontzak eta ugaltzeak eragin handiagoa dute emakumeengan gizonengan baino, bereziki, emakumea gazte ezkondu eta haren senarra askoz zaharragoa denean. Adinean alde handia izateak, sarri, senar-emazteen arteko desberdintasuna areagotzea dakar.

Poligamia gertakari arrunta da Sahara azpiko Afrikako zenbait herrialdetan; Ipar Afrikan eta hegoaldeko zein mendebaldeko Asiako herrialde batzuetan ere izaten da, gutxiago bada ere. Ezkontza poligamikoek eragin garrantzitsua izaten dute emakumeen egoeran, senar-emazteek bere seme-alabekin duten harremanean eta emakumearen bizitza osatzen duten beste alderdi askotan.

Munduko eskualde guztietan –munduko herrialde ia guztietan– ugalkortasun tasak behera egiten ari dira. Ugalkortasun tasa txikiak dauzkaten herrialdeetan ugalkortasunak behera egiteko duen joeraren arrazoiak emakumeek jarduera ekonomikoetan gehiago esku hartzen dutela omen da, baina kontrako baldintza ekonomikoek ere badute eragina.

Txirotasuna

- Munduan dauden 1.300 milioi txirotatik %70 emakumeak direla kalkulatu da: gertakari horri “txirotasunaren emakumetzea” esaten diote, eta txirotasunak emakumeen artean gero eta eragin handiagoa duelako deitzen zaio horrela.

Hona hemen “txirotasunaren emakumetzea” izeneko kontzeptuaren funtsezko osagaiak:

- 1- txiroen artean emakumeen kopurua nagusi izatea.
- 2- txirotasunean emakumeei eragiten dieten arrazoiak daude, eta hori ez da ustekabeko kontua.

Jarrera baztertzailer jakin batzuek zuzenean eragiten diete emakumeen bizi-baldintzei. Emakumeek ardura gehiago izaten dute familian, diru sarrera gutxiago dute eta gizonak baino lansari murriztagoa jasotzen dute; horrez gain, baliabideak eskuratzeko aukera gutxiago eta astialdia ere urriagoa izaten dute.

Egokitze estrukturalako politikek (egonkortasunak, liberalizazioak eta pribatizazioek) emakumeek jasan beharreko zama areagotu dute: alde batetik, familiaren diru-sarrera hornidura bermatzeko lan gehiago egin beharra, eta bestetik, zenbait gizarte zerbitzu kendu izana beren lanaren bidez bete beharra.

Hezkuntza

- Egun dauden 900 milioi eskolagabetuetatik, bi heren emakumezkoak dira; eta lehen hezkuntza jasotzeko aukerarik ez daukaten 130 milioi umeen artean, gehienak neskak dira.

Lehen eta bigarren hezkuntzako matrikulazioari dagokionez, murrizten ari da generoak eragiten duen haustura. Hala ere, eta aurrerapen horiek izanagatik ere, seguruenik generoaren haustura ez da hezkuntza sektoretik guztiz desagertuko horretarako aurreikusitako datan, hau da, 2005ean.

Munduko eskualde gehienetan emakumeei goi mailako hezkuntzarako sarbidea erraztu baldin bazaie ere, emakumeek ez duten beti aukerarik izaten ohituraz gizonen mende egon diren jakintza adarretan sartzeko.

Ekonomia eta lana

- Gaur egun, errolda gehienek jarduera ekonomikoari langileen ikuspegitik heltzen diote eta ekonomikoki aktiboak diren biztanletzat jotzen dituzte erreferentziazko denbora tarte jakin batean “ondasun ekonomikoak eta zerbitzuak ekoizteko beharrezko den eskulana ematen duten pertsona guztiak, sexu batekoak zein bestekoak”. Era horretan, biztanleria aktiboa merkatu-jarduerarekin duen loturen arabera neurtzen dute.

Hala ere, garatzeko bidean dauden herrialdeetan biztanleen kopuru handi baten jarduera zeharka edo modu ez ofizialean dago merkatuari lotuta. Emakumeek ekonomian duten esku-hartzearen zati handi bat, dirurik jasotzen ez duten jardueren barnean dago; hala ere, jarduera horiek funtsezkoak dira beren komunitateek bizirik iraun ahal izateko.

- Gainera, emakume eta gizon gehienek bi lan moten arabera banatzen dute beren denbora: diru-truke egiten dena eta dirurik jaso gabe egiten dena. Oro har, diru-saririk ematen ez duen lana ez da estatistika ofizialetan agertzen.

Emakumeek lanean ematen duten denbora guztiaren %50 baino gehiago, diru-saririk ematen ez dien lanetan ematen dute. Gizonek, ordea, lan mota horietan laneo denbora osoaren %30etik %42ra bitarte baino ez dute ematen.

Emakumeek ordaindu gabeko eta ordaindutako lanaren artean egiten duten banaketa, seme-alaba txikiak izatearen arabera egiten dute. Emakumeek zaintzen dituzte batez ere seme-alabak; izan ere, emakumeek gizonek baino denbora bikoitza ematen dute ardura horretan.

Lan merkatuan, genero hausturan eragin gehien duen faktorea etxe barnean egiten den lanaren banaketa da oraindik ere –dirurik ematen ez duten lanetan igarotako denbora: garbiketa, familia artatzea eta janaria prestatzea.

- LANE Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, munduko ekonomiak jasan dituen aldaketa garrantzitsuek –mundializazio prozesu bizkorrak, teknologia aurrerapenaren erritmo biziak eta egituratu gabeko lan-sektorearen zabalkunde gero eta handiagoak– erabat aldatu dute azken urteetan lan merkatuan emakumeek duten egoera.

Aldaketa horiek, herrialdeetako eta nazioarteko ekonomia hazteko aukera berriak sortu dituzte, baina baita erronka berriak ere: langile berezituen eskaeraren gorakadari erantzun beharra, herrialdeko lan-indarraren zati handi baten lan aukerak bere horretan gordetzea eta horiek eragin dezaketen ezegonkortasuna murriztea. Kalterik handiena jasaten duten taldeak gazteak, adinekoak eta gutxien berezitutako langileak dira; eta LANEren txostenak adierazten duen legez, "kategoria guzti horietan emakumeak kaltetzeko joera dago".

- Emakume eta gizonen jarduera ekonomikoaren tasen arteko desberdintasuna gutxitzen ari da, baina horiek lan-indarrean duten esku hartzea oso desberdina da oraindik ere: emakumeek bateratu egin behar dituzte familia erantzukizuna eta lan ordaindua, eta gizonak izaten ez dituzten lanpostu eta zeregin desberdinetan aritzen dira, gehienetan maila baxuagokoetan.

Ohiko ez diren lan ereduak (lanaldi partzialak edo behin-behinekoak, esaterako) lanerako aukerak gehitu dituzte, batez ere emakumeen artean; baina, bestalde, lanaren egonkortasuna eta kalitatea murriztu dituzte, eta berekin ekarri dute enpleguaren segurtasunik ezak gora egitea eta babes neurririk ez izatea (amatasun baimena eta gurasoena, barbarako).

- Bestalde, generoari begiratuta eginiko laneko bereizketa lan merkatuan tinko dirauen ezaugarria da. Eskualde eta herrialde guztietan gertatzen dela ikusi daiteke, garapen ekonomikoa, sistema politikoarena, erlijiosoarena, gizartearena edo kulturarena edozein direla ere.

Emakumeak gizonak baino enplegu kopuru txikiagoan aritzen dira, eta lanerako aukera gutxiago ere badute, hezkuntza eta eskarmentu desberdintasunak direla eta. Enplegu desberdinetan aritzeaz gain, emakumeek eta gizonak oso maila desberdinak izaten dituzte lanaren hierarkian.

Emakumeek ordezkari gutxi izaten jarraitzen dute zuzendaritzako goi-lanpostuetan eta kudeaketako bestelako lanpostuetan, hau da, erantzukizun, gizarte maila eta ordainsari handiagoa dakartenetan.

- Herrialde askotako laneko legedian balio bereko lanagatik ordainsari bera emateko printzipioa ezarri dute, baina informazioa lortu den herrialdeetan, inon ez dute emakumeek gizonak beste irabazten.

Osasuna. Sexu eta ugaltze eskubideak

- Osasuna, gorputzekoa eta burukoa, zentzurik zabalenean ulertuta, pertsonen oinarritzko eskubideetako bat da. Baldintza ekonomikoak, gizarte eta kultura egoera, bizimodua eta estresa, horiek guztiak osasunerako faktore erabakigarriak dira.
- Emakumeen eta gizonen osasuna antzekoa bada ere, nabarmen desberdintzen da honako hauek: gaitzak hartzeko arriskuan, horiekiko zaurgarritasunean, gaitzak hartu ondorengo tratamenduetan eta ondorioetan.

Osasun arloan emakumeek bazterkeria ugari jasaten dute, eta gauza onartua da emakumeek eta gizonak ez dutela osasun aukera ez osasun arazo berdinek.

- Badakigu emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino handiagoa dela, eta horren arrazoia berezko desberdintasun genetikoak eta biologikoak omen dira. Emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino txikiagoa edo zerbait handiagoa denean, uste da kultur faktoreek eragin txarra izaten dutela emakumeen egoeran eta baldintzetan.

Emakumeak berdin tratatzen dituzten herrialdeetan, 100 gizoneko 106 emakume dago. Hala ere, Sahara azpiko Afrikan bestelakoa da egoera, 100 gizoneko 102 emakume; eta Txinan eta hegoaldeko Asian, 100 gizoneko 94 emakume baino ez dago.

- 1990eko hamarraldian eginiko nazioarteko jardunaldietan aitortu zuten emakumeek ugalketa alorrean osasun laguntza izateko eta kalitatezko amatasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea zutela, eta horiek osasunaren eta ongizatearen oinarritzko eskubidearen berezko zatia zirela.

Garatzeko bidean dauden herrialdeetan, berenberegi ezarritako familia-plangintzako zenbait politikaren ondorioz, hedatu egin da antisorgailuen erabilera eta ugalkortasun tasek behera egin dute. Horrela, zabaldu egin dira emakumeen bizitzeko aukerak, sarriegi izandako haurdunaldien eta nahi izan ez dituztenen zama kendu zaielako. Hala ere, garatzeko bidean dauden herrialdeetan, haurdunaldia eta erditzea dira emakumeen heriotzen arrazoi nagusiak.

Pekingo Plataforman onartu zuten abortua benetako arazoa dela osasun publikoaren esparruan. Garatzeko bidean dauden eskualdeetako nazio askotan, abortua izateagatik hiltzeko arrisku orokorra 250etik 1 dela jotzen da; eta garatuta dauden eskualdeetan, ordea, arrisku hori 3.700etik 1 da.

- Ugalketa ez da emakumeen osasunak jasan behar izaten duen arrisku bakarra, badira beste batzuk ere: gutxiegi elikatzea, indarkeria, sexu bidez transmititutako gaitzak eta txirotasuna.

Publikatutako azken estatistikek adierazten dute GIB eta HIESA hartzen duten emakumeen ehunekoa gero eta handiagoa dela (arazo hori larritu egiten da, ziurrenik emakume horiek hartu beharko dutelako bere gain gaitz bera duten umeak zaintzeko ardura).

Neurriak hartu gabe sexu harremanak izatean Giza Immunoeskasiaren Birusaz infektatua izateko arriskua 2 eta 4 aldiz handiagoa da emakumeentzat gizonentzat baino. Faktore biologikoez gain, gizarte eta kultura faktoreek ere emakumeek GIB hartzeko aukerak areagotzen dituzte. Zenbait kulturatan, jarduera baztertzaileek ugalketa-osasunaz informazioa jasotzeko bidea murrizten diete, nahiz eta horrek gaitz eta kalteetatik babesten lagunduko lieken. Horrezaz gain, emakumeen eta gizonen arteko botere desorekak eragotzi egin diezaieke emakumeei beren eskubide eta autonomiaz baliatzea.

Giza eskubideak

- Emakumeen aurkako indarkeria mundu osoa hartzen duen arazoa da. Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko deklarazioan indarkeria

horren baitan sartzen dira honako hauek: familian eta gizartean oro har gertatzen diren indarkeria fisikoa eta psikologikoa, eta sexu indarkeria, tratu txarrak barne; neskei eginiko sexu gehiegikeriak; ezkonsariarekin zerikusia daukan indarkeria; senarrak emaztea bortxatzea; emakumeei sexu atalak ebakitzea eta emakumeei kalte egiten dieten bestelako ohiturak; esplotazioari loturiko indarkeria; lanean, hezkuntza erakundeetan eta bestelako lekuetan sexu jazarpena egitea edo beldurra ematea; emakumeak salerostea; emagaldutaz izatera behartzea eta Estatuak antolatutako edo onartutako indarkeria.

- Emakumeek gehienetan jasan beharreko indarkeria senarrak edo adiskide minak emaniko tratu txarrak izaten dira. Emakumeen aurkako indarkeria arazo unibertsala da, eta edozein kultura, geografia, arraza, talde etniko, klase eta erlijio baino harago doa.
- Beste hari bati helduz, estatistika gutxi dago sexuaren arabera banakatuta eta gatazka armatuen ondorioak aztertzen dituenak. Hala ere, eskuragarri dugun emakumeen kontrako indarkeriari buruzko informazio kopurua gora doa.
- Dazkagun datuek oinarri urria ematen badute ere, uste da 100 eta 132 milioi bitarte direla mundu osoan sexu atalen mozketak jasan duten neska eta emakumeak. Horrez gain, urtean 2 milioi neskak mozketak motaren bat jasaten dutela pentsatzen da.

Gizartean eta politikan parte hartzea eta erabakiak hartzea

- Pekingo Ekintza Plataforman onartu zuten erabakiak hartzeko prozesuaren maila guztietan emakumeek parte hartzerik ez badute eta horien ikuspuntua jasotzen ez bada, ezingo direla berdintasun, garapen eta bake helburuak lortu.
- Jardunaldi haietatik igarotako urteetan, hala ere, herri administrazioetako eta enpresetako gorengo mailetan emakumeek izan duten esku-hartzea ez da nabarmenki hasi.

2000ko lehenengo sei hilabeteetan, bederatzi emakume baino ez ziren estatu edo gobernuetako buru. Era berean, urrun gaude parlamentuetako ordezkarietara berdintasuna lortzeki.

Gainera, emakumeek ordezkari gutxi dute alderdi politikoen gorengo mailetan.

Enpresa munduan ere, emakumeek ez dute ordezkari kopuru handiagorik. 1999an, esaterako, AEBko 500 enpresa nagusietan, zuzendaritza arloko langileen artean %11 eta %12 ziren emakumeak.

- Oraindik ere, munduko zenbait herrialdetan legeak emakumeak baztertzeko ondasunen administrazioari, bidaiatzeko eskubideari eta lantzeria jasotzeko aukerei dagozkien esparruetan; eta emakumeek baimena eskatu behar izaten diete beren senarrei.

Azken batean, munduko inongo lekutan ez dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko benetako baldintzarik bermatzen. Zenbait herrialdetan, aldaketak egiten ari dira lege kontuetan; hala ere, arauaren eta gizarte errealitatearen arteko haustura handia da oraindik.

Informazio iturriak:

- PNUD (GARAPENERAKO NAZIO BATUEN PROGRAMA) (1995): *Informe sobre Desarrollo Humano 1995*. New York: PNUD.
- NAZIO BATUAK (2001): *Situación de la Mujer en el Mundo 2000. Tendencias y estadísticas*. New York: Estatistikak eta gizarte adierazleak, K saila, 16. zk.